

# GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2021eko ekainaren 24an aurkeztuko du

**Cecilia Bengolea: *Ur-animazioak***

# GUGGENHEIM BILBAO

## *Cecilia Bengolea: Ur-animazioak*

- Datak: ekainak 24–urriak 24 2021
- Komisarioa: Manuel Cirauqui
- Film & Video aretoa (103)

2021eko ekainaren 24tik urriaren 24ra, Guggenheim Bilbao Museoak *Cecilia Bengolea: Ur-animazioak* aurkezten du; 2021eko bigarren erakusketa Film & Video aretoan. Museoak areto honetan erakusten ditu bideo-artean, zine-instalazioan, eta mugimendudun irudia jorratzen duten hizkuntza artistikoetan funtsezkoak diren piezak.

Erakusketa honek Cecilia Bengolearen (Buenos Aires, 1979) hiru obra berri biltzen ditu. Diziplina anitzetan diharduen artista da, bere jardunean bideoa, koreografia eta eskultura uztartzen dituena. Uraren mugimenduari eta fluxuari jarraituz, erakusketak hainbat obra biltzen ditu. Obra horietan, Bengoleak dantzari buruz hausnartzen du (hau da, gorputzaren barrualdearen eta hura inguratzen duenaren arteko jolas sentzorialari buruz), baina baita komunitate sozialen eta naturaren arteko harreman erritmikoei buruz ere, zeinak koreografiaren bidez adierazten baitira, sintomatikoki.

*Ur-animazioak* erakusketak hiru pieza biltzen ditu, eta hirurek agerian uzten dute artistak bideo-eskulturari eskaintzen dion ikuspegi berezia; izan ere, erakusketa-espazioan askatasunez dabiltzan eragile gorpuzdunak balira bezala ulertzen ditu mugimendudun irudiak. Erakusketaren izenburuak animazioa aipatzen du, eta kontzeptu anbiguo horrek filmetako pertsonaien mugimendu naturalari egiten dio erreferentzia, baita antzinako ideia bati ere: artifiziala denari bizia ematea, bizigabea dena energiaz hornitzea. Bengolearen lanean, arima —gorputz baten espiritu edo bizi-hats gisa ulertua— estu-estu lotuta dago organismo bizidunek energia elektrikoaren eroale gisa duten ahalmenarekin; musika, aldiz, animazioaren indar kutsakor gisa agertzen da. Eraldatzeko, mutatzeko eta beste batzuk imitatzeko duten ahalmen agorrezina dela-eta, urarekin eta elementu horren plastikotasun amaigabearekin identifikatzen dira izaki bizidunak.

*Ur-animazioak* osatzen duten hiru obrek urarekiko, likidoarekiko edo fluidoarekiko esperientziak aztertzen dituzte: *Tximista-dantza* (*Lightning Dance*, 2018), Jamaikan filmatua, Bengoleak eta *dancehall* estilo garaikidearen figura aipagarrienetako batzuek elkarlanean egin zuten, koreografiak bakarka eta taldean euripean eginez. Kanal bakarreko zuri-beltzeko bideo-proiektio horrekin, egileak atmosferako elektrizitateak portaeran eta irudimenean duen eragina aztertzen du. Obra Bengolea Jamaika uharteko *dancehall* kulturaren inguruan osatzen ari den lan-sail batekoa da —kultura hori, hain zuzen, pop musika eta dantzaren azpigenero eta estilo ugariaren inspirazio-iturri den fenomeno global bihurtu da gaur egun—. Kultura hori benetan aberatsa da koreografietan; gainera, eguneroko erritua da, eta ahalmen sendagarriak ematen dizkie horren aritzen direnei. Crescendo handi batek markatuta, ekaitz batean elektrizitatez betetako airea bezala, soinu-banda errepidearen alboetan egiten diren taldeko dantzen sekuentzia esplosiboez laguntzen da. *Tximista-dantza* obran, musika- eta ingurumen-energiak etengabe lotzen dira,

# GUGGENHEIM BILBAO

hur-hurreko talka gisa: hein batean arinduta, trumoiak **atzeko** perkusioarekin sinkronizatzen dira, soinu-ingurune berezi gisa, eta, hor, isiltasuna fisikoki ere hauteman daiteke.

Obra honen aurkezpen zirrargarriari bi animazio digital gehitzen zaizkio: *Bestiariora* (2019) eta *Posizio gogokoan* (2018). Jorge Luis Borges-en *El libro de los seres imaginarios* ("Alegiazko izakien liburua", 1957) liburuko deskribapenetan inspirazio hartuta, *Bestiariora* bere gorputza eskaneatu zuen artistak, eboluzionatu ahala izaki fantastiko sorta bat bilakatzeraino. Hala, hologrametakoen antzeko ikonografia erabilita, etengabeko metamorfosi-egoeran dagoen **gorputz baten** alegiazko transformazioak jartzen ditu agerian. Bestalde, *Posizio gogokoan* lanak olagarroaren idiosinkrasia hartzen du abiapuntutzat, mugarik ez duen gorputz bat iradokitzeke: kreatura erabat likido eta guztiz sentikorra, adimen deszentralizatu eta aniztunaz hornitua, zeinaren mugimenduak aske dabiltzan barnearen eta kanpoaren, izakiaren eta ingurunearen artean.

## Cecilia Bengolea. Biografia

Cecilia Bengolea (1979, Buenos Aires) Parisen bizi da duela bi hamarkadatik hona. Filosofia eta Artearen Historia ikasi ondoren, koreografia aztertzen eta diziplina hori bideoarekin eta eskulturarekin uztartzen hasi zen. Bere ikerketa-lanean, herri-dantzaren zenbait adierazpide aztertu eta elementu garaikideekin eta arkaikoekin konbinatzen ditu, eta hala, figurazio kontzeptuaren inguruko definizio berriak sortzen ditu etengabe.

Diziplina anitzeko eta elkarlanean oinarritutako obra honetan, Bengoleak *dancehall*-eko figura ospetsuekin egin zuen lan (besteak beste, Craig Black Eagle, Bombom DHQ eta Damion BG), baita artista garaikide ezagunekin ere (esaterako, Dominique Gonzalez-Foerster eta Jeremy Deller). Haren *Pâquerette* (2005-08) eta *Silfideak* (*Sylphides*, 2009) obrek, François Chaignaud koreografo frantsesarekin batera, sari ospetsuak jaso dituzte, hala nola Parisko Kritikaren Saria 2010ean, eta Gwangjuko Bienaleko Artista Gazteentzako Saria 2014an. Bengolearen bideoinstalazioak eta performanceak hainbat erakunde ospetsutan egon dira ikusgai; besteak beste, Lyongo Bienala; Londreseko Tate Modern; New Yorkeko Dia Art Foundation; São Pauloko Bienala; Dhaka Art Summit; Parisko Centre Pompidou; Kaliforniako DesertX; New Yorkeko Performa; Los Angeleseko Mistake Room; eta Parisko Fondation Giacometti.

## Film & Video (103. aretoa)

Film & Video aretoa bideoarteari, bideoinstalazioari eta mugimenduan dagoen irudiari eskainitako espazio bat da, eta, bertan, Guggenheim museoetako nahiz nazioarteko beste erakunde batzuetako obrak biltzen dira. 2014an zabaldu zenetik, Film & Video aretoak artista berezi ugariaren sorkuntza-lanak izan ditu ikusgai; besteak beste, hauenak: Christian Marclay, Ragnar Kjartansson, Fiona Tan, Ken Jacobs, Amie Siegel, Pierre Huyghe, Michael Snow, Javier Téllez, Diana Thater, Allora & Calzadilla, Jesper Just, Jesse Jones eta William Kentridge.

# GUGGENHEIM BILBAO

## Hezkuntza-jarduerak:

### **Artistekin solasean: Cecilia Bengolea (ekainak 24)**

Manuel Cirauquik, Film & Video erakusketa-programaren arte-arduradunak, Cecilia Bengolearekin hitz egingo du, *Ur-animazioak* erakusketa inauguratuko baita. Elkarrizketa artistak performancearekin, herri-kulturarekin, literaturarekin eta fikzio espekulatiboarekin duen harremanari buruzkoa izango da, eta arreta berezia jarriko du Jamaikako *dancehall*-aren inguruan egiten ari den ikerketan. Elkarrizketaz [gain](#), Bengolearen hainbat bideo ere proiektatuko [dira](#).

## **Azaleko irudia**

### ***Cecilia Bengolea: Ur-animazioak***

*Tximista-dantza (Lightning Dance)*, 2018

Bideo-proiektzioa, zuri-beltza, soinuduna

Artistak eta àngels barcelonak eskainia

© Cecilia Bengolea

## **Argibideak:**

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketin eta Komunikazio Arloa

Tel: +34 944 359 008

[media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

[www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus)

# GUGGENHEIM BILBAO

Prentsa irudiak:

***Cecilia Bengolea: Ur-animazioak***

Guggenheim Bilbao Museoa

## **Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua**

Museoaren webguneko prentsa eremuan ([prensa.guggenheim-bilbao.eus/eu](http://prensa.guggenheim-bilbao.eus/eu)) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, [media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

### ***Cecilia Bengolea: Ur-animazioak***

*Tximista-dantza (Lightning Dance)*, 2018

Bideo-proiektzioa, zuri-beltza, soinuduna

Artistak eta àngels barcelonak eskainia

© Cecilia Bengolea



### ***Cecilia Bengolea: Ur-animazioak***

*Tximista-dantza (Lightning Dance)*, 2018

Bideo-proiektzioa, zuri-beltza, soinuduna

Artistak eta àngels barcelonak eskainia

© Cecilia Bengolea



### ***Cecilia Bengolea: Ur-animazioak***


*Bestiaríoa (Bestiaire)*, 2019

Koloretako bideoa, 3D animazioa, 7 min

Neurri aldakorrak

Eskaintza: artista eta Galería Àngels Barcelona

© Cecilia Bengolea



### ***Cecilia Bengolea: Ur-animazioak***

*Bestiaríoa (Bestiaire)*, 2019

Koloretako bideoa, 3D animazioa, 7 min

Neurri aldakorrak

Eskaintza: artista eta Galería Àngels Barcelona

© Cecilia Bengolea



# GUGGENHEIM BILBAO

***Cecilia Bengolea: Ur-animazioak***

*Posizio gogokoenak (Favorite Positions)*, 2019

Koloretako bideoa, 3D animazioa, 7 min

Neurri aldakorrak

Eskaintza: artista eta Galería Àngels Barcelona

© Cecilia Bengolea



***Cecilia Bengolea: Ur-animazioak***

*Posizio gogokoenak (Favorite Positions)*, 2019

Koloretako bideoa, 3D animazioa, 7 min

Neurri aldakorrak

Eskaintza: artista eta Galería Àngels Barcelona

© Cecilia Bengolea

